

Krisia Burtsan

Azken asteotan Burtsak protagonista izan dira. "Munduko Burtsen erorketa" izan da izenburu ohikoa. "Kreditu zaborrek" Amerikako Estatu Batuetan eragin duten hipoteka krisiak abiatu du guztia. Kreditu zaborrak ematen zaizkie diru sarrera nahikoa ez dutenei, bermerako ondasunik ez dutenei. Hartutako arriskua berdintzeko interes tasa altuak ezartzen zaizkie, eta baita gainordain eta ezohiko komisioak ere. 2005ean boomak goia jo zuen: arrisku handiko hipotekak 600.000 milioi eurokoak izan ziren. Amerikako Estatu Batuetan, batetik interes tasak igo ziren eta bestetik higiezinaren merkatua geratu zen, ondorioz, zorrak ordaindu ezinik ibili zen asko. Lehen seihilekoan enbargoek %58 egin zuten gora. Estatu-batuarrak eskuak lotuta daude batzuk etxea saltzeko desiratzen daudelako, baina inor gutxik, krisi gorrian, etxerik erosi nahi duelako. Kreditu mota horiekin lan egiten zuten bankuek finantz merkatuan tituluak jaulkitzen zituzten, arrisku handiko hipotekak babesgarri zituztela. Jaulkitako tituluak Inbertsio Funtz eta Bankuek (espekulatuzaileek) bereganatzen zituzten. Bermea goitik behera etorrita, funtsek ia balore osoa galdu zuten edo ezin izan zuten bermatu dirua itzultzea. Krisia medio, inbertituzaileak (espekulatuzaileak) fidagaitz ziren eta Burtsetatik alde egiten hasi ziren. Banku zentralak eskua bota diete milioika dolar sartuz. Espekulatuzaileek krisia eragiten dute negozioak hobetzen segitzeko. Burtsen erorketa eragiten dute eta gero merkeago erosten dute. Globalizazio kapitalista deitzen zaio horri. Negozioak bere bidea segitzen du.

Juan Mari Arregi

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza kendu du Nafarroako Gobernuak

NAFARROAKO GOBERNUAK Hizkuntza Politika Gobernuko zuzendaritza nagusien zerrendatik kentzea erabaki du. Orain arte, Hezkuntza Departamentuaren barruan zegoen Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza. Aurrerantzean Unibertsitateen eta Lanbide Heziketaren zuzendaritza nagusia izango da eta hor jarraituko dute orain arte Hizkuntza Politikak biltzen zituen sail eta zerbitzuek. Pedro Jose Gonzalez Felipe izango da zuzendari nagusia.

BAHEA

Bernat Joan i Mari Soziolinguistikaren adituak elebakartasuna dela eta www.gipuzkoaeuskara.net web gunean esanak:

"Oso zabaldua dagoen hizkuntzaren batean hitz egiten dutenek, egokitzeko zailtasunak izan ohi dituzte egoera soziolinguistiko konplexuko komunitateetan daudenean, eta orduan ere, elebakartasunerako joera izaten dute. Gai horretan, hain zuzen, ikerketa bat egin zen Andorrako ikastetxe frantses batean (irakaskuntza frantsesez; ikasleen artean katalan hiztunak, frantses hiztunak, gaztelania hiztunak, beste hizkuntzarik ere bai; ingurune frantsesdu-na...). Ikerketak erakutsi zuen atsedean garaian gaztelania egiten zutela gehien, gaztelania hiztunak baitziren hizkuntza aldatzen ez zuten bakarrak, inguruko egoera bat zein beste izanagatik ere".

Lionel Joly soziolinguistak *Jakinen* (160. zbk.) esanak: "Oso pertsona gutxik dakite benetan uneoro zein hizkuntzatan hitz egiten duten eta, beraz, galdetzen bazaie normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duten, eraiki beharko dute iritzi bat eta erantzun bat, eta eraikitze prozesu horretan erabileraren errealitatearekin zer ikusirik ez duen hainbat aldagai sartzen da (esate baterako: iritziak, nahiak, usteak eta abar); hortaz, benetako erabileraren errealitateetik urruntzen gara. Beraz, inkestetan datuak ez dira objektiboak, subjektiboak baizik".



Ondarre baserria



20214 Segura (Gipuzkoa)
Tel.: 943 801684
e-posta: ondarre@nispavista.com
www.acvmmultimedia.com/ondarre

Estrategia barik dabil abertzaletasuna?

DURANGOKO atentatuak erakutsi du hamarkadetan ezagutzen dugun gupil zoroak bere abiada jarraitzen duela, atentatu saiakerek lehenago edo geroago fruitua izan dutela. Ez dena horren argi ikusten, saiakera horien kostu militarra da, nahiz eta ETAk aterako dituen bere kontuak. Edozein modutan, iritzi publikora iristen den mezua da erakunde armatuari gero eta zailagoa zaiola bere jardun armatua aritzea, ustezko etakideen etengabeko atxiloketa eta polizi indarren kontrola gero eta handiagoa dela. Horiek begibistakoak diren moduan, horren agerikoak dira, halaber, ETAk jarduteko eta berpizteko duen etengabeko ahalmena. Ia mende Erdiko jardun armatuak eragin duen dinamika, behin-betiko erakutsi behar luke ETaren indarkeriaren amaierak irtenbide negoziatua izango duela edo ez dela irtenbide egokirik izango. Su-etenaren usainean edo negoziazio politikoen gorian, "bakearen truke, deabruarekin ere negoziatu behar dela" eta gisakoak saltzea eta atentatu garaian elkarrizketa eta negoziatioaren irtenbidea madarikatzea erabat kontrajarriak dira. Neurri batean uler daitezke politikaren azaleko fluktuazio gisa, baina inoiz ez sakoneko korrante gisa. Baina negoziatioa eta elkarrizketaren irtenbidean sinesten dugunok ere badugu arazo latza, gero eta zailagoa egiten zaigula ulertzea irtenbide hori eman dadin, aktore politiko nagusien minimoak zeintzuk diren. Azken su-etenaren inguruan eragile nagusi gisa jardun duten aldean azalpen ezofizio-soek balio izan dute zertan jardun duten jakiteko, baina ez akordioa lortzeko bakoitza mahaiaren gainean zer jartzeko prest egon izan den.



Bitartean, ANV-EAEk jasan behariko ditu gupilaren hurrengo ondorioak, ilegalizazio hotsen artean aritu beharrean kasurik arinenean eta Batasunaren urratsak jarraituz txarrean. Ilegalizazio politika, besteak beste, antidemokratikoa da erabat, baina lau urteko esperientziak mingarria dela ere erakutsi du. Eta Madrilek inork baino hobeto daki hori.

EUSKO JAURLARITZAKO hirukoa ez dago bere onenean, udal hauteskunde biamona ez da gozoa izan eta ez da garbi ikusten abuztu bukaerako buruzagi jeltzale zenbaiten haserreak zer ekar dezakeen. Iñigo Urkulluk EA eta EB bere tokian jarri nahi izan dituela aipatu da, eta Urkulluk jakin badakenez horiek gabe hirukorik ez dagoela, pentsa liteke alternatibarik ere izan dezakeela, PSE alegia. EBB norabide hori finkatzen aritu da bere agintaldian eta honen bukaeran bide hori tinkotasun handiz ari da defendatzen Josu Jon Imaz bere iritzi artikulu sendoekin. Eta denak pentsarazten du, edo gailenduz edo kontsentsuz lortuta, Imazek bere artikuluetan aipatzen dituen kontzeptu nagusiek indar handia izango dutela EAJren ondorengo lau urteetako ibilbidean. Hirukoaren dinamikatik at, zaila da ulertzea Joseba Azkarragak abertzaletasunaz esan zituenak lehendaka-

riaren aurkakoak izatea edota EAJren eztabaida baldintza lezaketenik –baita asmo horrekin egin izan balira ere–. Logikoagoa da pentsatzea lbarretxe planaren arbuioa eta bake prozesuaren apurketaren ondoren, abertzaletasun jarraitu beharreko bideei buruzko hainbat hausnarketa izango direla eta horietan bai, horietan eragin gura dela.

Edozein kasutan, adierazgarria ere bada hirukoaren krisia dioten bezain gogorra baldin bada, beraz zuzentzen duenak, lehendakariak alegia, orain arte txintik ere ez esan izana.

HILAREN 1EAN, larunbata, PSNren Lurralde Zuzendaritza bilduko da. Ferrazek egindako inposaketaren ondoren makinatxo bat ahots kritiko entzun dira PSNren baitan. Orain ikusi behar da horrek zer ondorio dakarren kongresu arteko organo erabakigarrienean. Ezinegona handia da PSNren baitan eta burua altxatzeko aukera eskasa epe laburrera, areago Madrildik finkatutako zeregin eta estrategiarekin. Oposizio zeregina ere ezabatu zaio, nekez egin baitezake oposizio sendorik aldaketarako aukera etengabe esku artean eduki eta aktibatzen ez duenak. NaBaik du orain benetako oposizioa bereganatzeko aukera eta hori baliatzen badu, apurka alternatibaren buruzagitza ere berea izango da. Yolanda Barcina eta Miguel Sanz non dauden ikusita, lehenengo begiradak ezer ez dela aldatu aditzera eman dezake. Baina gutxiengoan aritzeak zenbait aldaketa ekarriko ditu eta legealdian zehar ikusiko dira.